

PRENTSA-OHARRA

Teknikerrek fabrikazio aurreraturako laser teknologiak aurkeztu ditu Bilbon

- *Zentro teknologikoak stand bat izango du Bizkaia Aretoan ekainaren 18tik 20ra egingo den fabrikazio-ingeniaritzako elkartearen MESIC nazioarteko biltzarrean*
- *Teknikerrek, ekitaldiaren babesleak, nekazaritzatik aeronautikara doazen aplikazioen Europa eta estatu mailako I+G proiektuen emaitzak aurkeztuko ditu*

[Eibar, 2025ko ekainaren 16an] – **Tekniker** zentro teknologikoak, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kideak, laser teknologia berrietan duen ezagutzak presentzia nabarmena izango du **MESIC 2025** fabrikazio ingeniaritza elkartearen nazioarteko biltzarrean. Fabrikazio aurreraturako azken berrikuntza eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoen erakusleiho den ekitaldiaren 11. edizioa aste honetan, ekainaren 18tik 20ra, egingo da Bilboko Bizkaia Aretoan.

Teknikerren kasuan, ekitaldiaren babesleetako bat izateaz gain, erakusketa-gunean stand bat izango du, Europa eta estatu mailako I+G proiektuen emaitzak aurkezteko. Guztiek erabiltzen eta aplikatzen dute laserra gainazalak, egiturak edo piezak fabrikatzeko prozesuetan.

Aipagarria da, adibidez, teknologia horiekin testurizatutako azalera baten erakuslea, INFUNDA proiektuaren esparruan gauzatua, Espainiako Gobernuak Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatua, Enpresa Ikerketarako Partzuergo Nazionalaren (CIEN) Programa Estrategikoaren esparruan.

Gainazalak erraz garbitzeko propietateak ditu, nekazaritza- eta osasun-sektoreetarako bereziki egokiak direnak. Gainera, maila industrialean pultsu ultramotzen bidezko laser testurizatzearen prozesua ezartzeko eta ontzi polimerikoak eskala handian ekoizten dituzten industrietan, hala nola elikagaigintzan edo automobilgintzan, sartzeko aurrerapauso bat emateko potentziala erakusten du. "Kasu honetan, berritzaileena testurak hiru dimentsioko

pieza konplexu batera transferitzeko gai izatea da. Horrek handitu egiten du laser-testura horiek aplikatzeko aukera. Gainera, testura mota eta neurriak aplikazio motara egokitu daitezke, hala nola izotzaren aurkako gainazalak edo bakterioen kontrakoak", azaldu du Julen Molinuevo Teknikerreko ikertzaileak.

Europako proiektuen emaitzak

Zentro teknologikoaren standak Horizon Europe programaren LASERWAY edo IAM4RAIL bezalako Europar Batasuneko funtsekin finantzatutako ekimenen emaitzak ere erakutsiko ditu.

Lehenengoan, laser bidezko iragazki metaliko mikrozulatuak garatzen ari dira urak tratatzeko; bigarrenean, berriz, altzairuzko bloke bat lortu da tren gurpilekin saiakuntzak egiteko, laser bidezko hari formako metalezko materialaren zuzeneko ekarpen-prozesuaren bidez (DED-LB/MW).

Teknikerren MESIC 2025eko erakusleen zerrenda osatzeko, automobilgintzarako balazta-disko bat dago, MARTE proiektuan abiadura handiko laserraren birkargarekin ekoitzitako zeramikazko estaldurarekin, NextGeneration funtsekin finantzatuta, eta titaniozko egitura aeronautiko bat, Eusko Jaurlaritzaren Elkartek programaren EDISON proiektuan atmosfera kontrolatuko makina gehigarri berritzailean sortua.

Gainera, Teknikerrek arlo horretan duen bikaintasun zientifikoa biltzarraren aldizkari ofizialetan argitaratutako bi ikerlanen bidez ere frogatuko da: aipatutako INFUNDA proiektuaren emaitzak eta DED-LB/MW prozesuaren monitorizazioan eta kalitatearen azterketan oinarritutako ikerketa.

"Gure aurkikuntzek erakusten dute datuetan oinarritutako metodologiek ahalmena dutela fabrikazio-prozesuen bilakaera ulertzeko eta kalitatea aztertze gaitasunak hobetzeko. Gainera, DED prozesu fidagarriago baterantz aurrera egiteko oinarriak ezartzen dituzte, etorkizunean prozesuak optimizatzeko eta kalitatea bermatzeko garapenak egiteko ezagutza-oinarri bat eskainiz", ziurtatu du Jon Flores Teknikerreko ikertzaileak.

Teknikeri buruz

Tekniker fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta fabrikaziorako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez gizarte osoari hazkundea eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago izateko:

GUK ► Unai Macias

unai@guk.eus | Tel. 690 212 067